


superlativo; *onegi, ederegi*, y así en los demás. Se traduce al castellano excesivamente bueno, hermoso, y excede al superlativo. Ni el latín ni el castellano tienen semejante grado comparativo. No es miánimo detenerme á presentar los primores de nuestro idioma. Es travaxo separado y de mucha extension.

---

## OKENDO.<sup>1</sup>



### I.

Zurriyola-ko ur biziyetan zebillen mutill koškor bat jostatzen, arturik chalupa churi chiki bat, zoña bultzaturik makill koškor batekiñ arrauna balu bezela, bazirudiyen zebillen pachararekiñ, zala ur ayetako errege.

Bat batian itsasua ordu arte ill illa egonduzana, mugitu zan arrunkaz beterik, egin zuben deadar ikaragarri bat eta alchaturik bere bizkar afar zuriz apaindua, asi zan korri batera ta korri bestera zoro izugarri baten gisan, nastu zuben lenago geldi-geldirik zegon ura, eta zurrunbillen erdiyan arkituzan chalupa churi chiki ura eta bere barrenen mutill koškorra, Zerutik jechitako aingerua ziruriyela.

Donostiyako murre edo muralla gañetan jendia dago izuturik erregutuaz Jaungoikoari salbatzeko ume ura: errege-soruan barrena dijoaz beste asko sayatzeko asmuan nola edo ala laguntzen; Manteo-kozokotik dator berriz emakume bat, bere semia echian ez dala ikusirik, nonbait arkitzen ote duben.

Begiratzen du Zurriyola-ra, ikusten ditu olatu izugarriyak, zalaparta aundiyakiñ beron artian burruka, eta afar gañian jira ta bira chalupa kaškar bat, eta an.... ume bat.

---

(1) Lenyenda premiada con un *objeto de arte* (en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1891. (Véase pág. 522).

—Antoniocho! Antoniocho!—uju egiñaz korri egiten du nora dijoan ez dakiyela; zergatik ¿nora joango da? zér egingo du bere semia salbatzeko?

—Atoz maitia—deadar egiten diyo. Bañan nola etorri? Gizarasua an dabill ur nastubayen erdiyan, bere amari begiratu alai bat egiñaz, alegiñak egiten trantzi artatik irtentzeko; jendia alde batetik sokakiñ sayatzenda zerbait laguntzen, bañan alferrik; eta beste ur bazterretik dago ama sentimentuz betea, luzaturik bere besuak, ayekiñ arrapatu nai balu bezela bere biyotzeko semia.

Alakoik batian, doakabezko soñu bat aitzen da, eta chalupa egiten da bi puska; karraši ikaragarri bat egiten du amak; jendiak berriz deadar aundi bat; ontziyan puskak badijoaz alde guztietara, eta arroka baten gañian, agertzen da zutik ume ura, aldare gañetan egoten diran aingeruak bezela.

—¡Galduba da!—diyo amak.—¡Nola salbatu! diote besteak. Okendo-k ez du itzik egiten, bere moduz dago pentsamentuan bezela, eta bat batian saltatzen du chalupa puska batera... bañan a! ondora dijoa... —Ai!—ikaragarri bat aitzen da; eta orduan bertan azaltzen da berriz uren gañian amaren karrašiari errespuesta ematera, egiten diola far goño bat.

Bulkatzen dio arrokari eta jira ta bira badatoriya lurreraño...; бага, mendiya baño aundiyagoko bat, zalaparta dariyola dator beste aldetik: badarama osteragure umia, a! galduba da!... bañan ez; soka beregana allegatu da... eltzen diyo... badator... salbatu da, legorrian dago.

Gizarašua! diote denak. Nere semia! dio amak, chimišta bañon azkarrago billa etorririk; musuka ta musuka garbitzen dio bere arpegiya, eta azkenik esaten dio:—¿ez aldakizu ez detala nai chalupan ibiltzia? merezi zenduke arroka gañian bakar bakarrik orchen bertan gaba pasatzen uztia.

—Amacho! ez aserratu; nik ura nai det; berriz ere itsasora joango naiz chalupan... ¿e? Utzi neri orrela ibiltzen; ez aserratu, amacho.

## II.

Ume ura gizon egiñ da; gerrako ontziyetan agintari dago, eta da itsas-gizonetan azkarrenetakua.

—Felipe irugarren eta laugarrenaren aginte denboran, izan da sekulako fama biribillatu duena, ala ingeles lapurren kontra Portugal-ko kostetan, nola Mediterraneo aldian moruak zatituaz, baita ere Brasil-en Olandako gerrako ontziyak oso azpiratuaz, eta alde guztietan, Españaiko banderak bear zuben guztiyan; eta ori egiten zuben jakinduri paregabekoakiñ eta bortiztasun edo balore inguratzekorik ez zan gisan; ainbesteraño, non bere ontziari deitzen zioten etsayak *Invencible*, au da ez zala ura azpiratuko zuen jenderik.

Modu onetan bizi zan, Ulia mendiñ ume chikiya ezagutu genduena, eta gero gizon aundiyenetakua izan zana, eta onela segitu izan zuben ill arteraño; eta azkeneko asnasietan zegüela, eta bere mintasunak ematen zizkan chorabiyuetan, gogoraturik bere amaz eta ark esandako itzetaz, zion:—Ona ama, nere lenbiziko naia kunplitu; naikua ibilli naiz ontziyan sartuta; ikusi ditut franko gora bera; amaika larritasunetan arkitu naiz; aski det; jarrinazake bada oraiñ Zurriyola-ko arroka gañian, eta ez badet ere beorri nere chiki denboran bezela ikusten, ikusiko det biñipiñ nere jayotz-echia, eta arren bistan beorri ikusten banu bezela egongo naiz.

Eta itz abek esanik ill zan, mundu guztiya arriturik iduki zuben gizon ura.

### III.

Gure Donosti maitia ez da oraiñ lenago zana; pareta beltz aundiyayek, preso idukizuten ayek, erori dira; ez dago oraiñ portalerik, sartu eta atera egiten da oraiñ kale zabal primorietatik, arboladi eder paregabekoetatik, eta lenago sorua zana dago oraiñ gaiñ gañeko echez beterik; esanliteke dala gure erriya kayola zoragarri bat.

Zurriyola aldia ere ez dago len bezela, paret aundiyakin esututu dute urtokiya, eta ondarrez beterik, egiñ dira an sarjiñ polit eta primoriak, lore usandunez betiak.

1887 Agorraren 5.<sup>a</sup> da.

Okendo chikiya zala chalupan ibilltzen zan inguruan ez dago geyago urik, baizik loretegi bat.

Erdiyan egin dute zulo aundiya; aldamenian dago zintzilik apareju bat; oyal ederrakin egiñtako iširi-tokiyak daude bi al-dietan; eta, inguruban, Okendo-k berak ibilli zuen bandera mai-tagarriya.

Musikak aitzen dira, soldaduak datoz, bai lurrekoak eta bai itsasokoak; badatoz ere apaizak, baita gure Apezpiku jauna ere; emen dira probintziyako agintariyak, emen errikuak; beste al-detik datoz berriz zaldizkuak, eta ondoren Españiako Erregiak, beren ondorengo jaun nobliakiñ.

¿Zér pasatzen da gaur emen? ¿Zertara datoz Españiako Erregiak, Apezpiku eta apaiza jaunak eta gañerako agintariyak? ¿Zertako datoz soldaduak, zertako jende pilla au guztiya alde guztiyetan ageri dana, zertako or itsasuan ageri diran gerrako ontzi aundiyak?

Zergatik naidan kunplitu Okendoren azkeneko borondatia, eta bere amak agindu ziyona egingo diyon ama Euskal-erriyak.

Arroka gañian jarriko degu, bañan ez nola naikuan, baizik pillare eder batian primorezko arriyakin egiñian.

Andik ikusiko du bere echia; andik itsaso zabal ainbeste al-diz ibilliya, eta an ikusiko degu guk bera, eta ikustian animatuko gera arrek bezela maitatzera gute jayotz-lurra, eta azkeneko asnase arte lan egitera bere alde.

TORIBIO ALZAGA-KOAK.

